



**2010EKO ABENDUAREN 23KO**  
**OHIKO OSOKO BILKURA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hamarreko abenduaren hogeita hiruan, iluntzeko zazpitan, Lazkaoko Udal Osoa biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Patxi Albisu Estensoro Alkatearen lehendakaritzapean, ohiko batzaraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Felix Urkola Iriarte, Amagoia Naldaiz Mingo, Xanet Barreras Jauregi, M<sup>a</sup> Lourdes Garmendia Guerra, Xabier Arrasate Aierbe, Inazio Estensoro Eskisabel, Inazio Barandiaran Aldasoro, Iñaki Saldaña Herrero eta Javier Moreno González de Lara.

Juan Manuel Serna Portugal, Ángel Hernández Marzal eta Ricardo Crespo Rubio zinegotziak ez dira bertaratu.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

**I.- AURREKO AKTA.-**

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkezten da 2010eko azaroaren 25ean egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

**II.- ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.-**

Ondoren Alkateak azken Osoko Bilkuratik gaur arte emandako Alkatezako Ebazpenen berri ematen du, ebazpen hauen zenbakizko laburpen baten bidez.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditzen da.

**III.- UDALA KONTENTZIOSOAN BERTARATZEA.-**

Euskal Herriko Justizia Auzitegi Goreneko Administrazioarekiko Auzietako Salak idatzia bidali du Udal honetara, ELA sindikatuak errekurso kontentzioso-administratiboa tartejarri dutela jakinaraziz. Aipatu errekursoa, Lazkaoko Udalak, herri defizita murrizteko maiatzaren 20eko 8/2010 Errege Dekretu-Legetik eratorritako neurrien aplikazioa onartu zueneko 2010eko uztailaren 29ko Osoko Bilkuraren erabakiaren aurkakoa da.

Halaber LAB sindikatuak errekurso kontentzioso-administratiboa tartejarri du Donostiako Administrazioarekiko Auzien 2. Zbk.ko Epaitegiaren aurrean aurretik aipatu den Lazkaoko Udalaren akordio honen aurka.

Honen aurrean, Osoko Bilkurak, gaia aztertu ondoren, eta bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, honako akordioak hartzen ditu:

1. Euskal Herriko Justizia Auzitegi Goreneko Administrazioarekiko Auzietako Salara eta Donostiako Administrazioarekiko Auzien 2. Zbk.ko Epaitegi eskatutako espedientearen egiaztatutako kopia foliatua bidaltzea.
2. Espedientean interesatu direnak enplazatzea, 9 eguneko epean errekursoan demandatu bezala bertaratu ahal izateko.
3. Udala prozedimentuetan bertaratzea, Javier Hernaez Manrique abokatua izendatuz.

#### IV.- C.A.F.EKO URBANIZAZIO PROIEKTUA LIZITAZIORA ATERATZEA.-

1 H.J.A. (C.A.F.) ko urbanizazio proiektuko lanak lehiaketa ireki bidez esleitzeko kontratazio prozedurari hasiera eman zaiolarik eta udal zerbitzu teknikoek dagozkion baldintza pleguak osatu dituztelarik, bere onarpenera aurkezten da Osoko Bilkura honen aurrera.

Osoko Bilkurak, gaia aztertu ondoren, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, Kontratazio espedientea onartu eta kontratua lehiaketa ireki eta ohiko prozedu bidez esleitzeko deialdia egitea erabakitzen du.

#### V.- BIDEGORRIAREN PROIEKTUA ETA BERA BURUTZEKO BEHARREZKO DIREN ONDASUN ETA ESKUBIDEEN ZERRENDA ONARTZEA.-

Lazkaoko udal honek sustatuta, Soroa Arquitectos, S.L.P.k "LAZKAOKO HIRIBARRREN, ELOSEGI ETA HIRIGOIEN KALEEN HIRITARTZEKO ETA HIRIGUNEAN BIZIKLETARI ETA OINEZKOENTZAKO BIDE ZATIA SARTZEKO PROIEKTUA" idatzi du.

Goian aipatutako proiektua garatu ahal izateko, Elosegi kalean kokatutako jabetza pribatuko zenbait lursail zati batean okupatzea beharrezkoa da.

Osoko Bilkurak, gaia aztertu ondoren eta Hirigintza, Obra eta Zerbitzuen Batzorde Informatzailearen proposamenaren aurrean, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, honako akordioak hartzen ditu:

1. "LAZKAOKO HIRIBARRREN, ELOSEGI ETA HIRIGOIEN KALEEN HIRITARTZEKO ETA HIRIGUNEAN BIZIKLETARI ETA OINEZKOENTZAKO BIDE ZATIA SARTZEKO PROIEKTUA" onartzea eta jendaurrean jartzea.
2. "LAZKAOKO HIRIBARRREN, ELOSEGI ETA HIRIGOIEN KALEEN HIRITARTZEKO ETA HIRIGUNEAN BIZIKLETARI ETA OINEZKOENTZAKO BIDE ZATIA SARTZEKO PROIEKTUA"ri emandako onarpenarekin, herri erabilera aitortzea egina dagoela jotzea eta beraz berauek okupatzekoa ere bai.
3. "LAZKAOKO HIRIBARRREN, ELOSEGI ETA HIRIGOIEN KALEEN HIRITARTZEKO ETA HIRIGUNEAN BIZIKLETARI ETA OINEZKOENTZAKO BIDE ZATIA SARTZEKO PROIEKTUA" garatu ahal izateko okupatu beharreko ondasun eta eskubideen zerrenda hasierako izaeraz onartzea. Aipatu zerrenda akordio hauen azkenean deskribatzen da.



4. Derrigorrezko Jabetza Kentze Legearen 18. artikuluan adierazi moduan akordioa hau-ek argitaratzea, espedientean interesatu moduan azaltzen diren guztiei banakako jaki-narazpenak eginez, eta iragarkiak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Berria eta Noticias de Gipuzkoa egunkarietan, eta Udaletxeko iragarki taulan argitaratuz, 15 laneguneko epean interesdunek egoki deritzoten alegazioak aurkeztu ditzaten.
5. Jendaurreko erakustaldian agertzen direnek egindako alegazioen aurrean, Udal Osoko Bilkura honek aipatutako ondasun eta eskubideen behin-betiko onarpenaren inguruan erabakiko du.

## UKITUTAKO JABE ETA PARTZELEN ZERRENDA.-

Partzela	Katastroko Erref.	Jabea	Azalera m <sup>2</sup>	Helbidea
1	2115002	- Iñigo De Arteaga Martin	254,4m <sup>2</sup>	Dr. Fleming 31 - 7. solairua, 28036 MADRID

VI.- 6 H.J.A. (ITURGAITZAGA)KO ARAU SUBSIDIARIOEN ALDAKETA PUNTUALAREN ONARPENA.-

Udal honek, 2010eko azaroaren 2ko alkatetzaren ebazpen bidez, Arau Subsidiario-etako 6 H.J.A.ri, -ITURGAITZAGA- ri, dagokion Planeamenduko AA.SS.en aldaketa puntua-la hasierako izaeraz onartu zuen.

Aldaketa puntuala ordenamenduaren egituragarriak ez diren elementuei dagokiena da eta beraz berau egiteko figura egokia 2/2006 Legearen Garapeneko Presazko Neurriak arautzen dituen 105/2008 Dekretuaren 30. artikuluan definitutakoa da. Jarraitutako proze-dura berriz 2/2006 Legearen 95, 96 eta 97 artikuluetan ezarritakoa.

Aldaketa puntualaren helburuak ondorengo hauek dira:

- 1.- Sotoetarako sarbideak aldatzea.
- 2.- Eraikinetako behe solairuen sestra zehaztea, erdisotoen diseinurako erizpideak batera-tzeko.
- 3.- Lursail eraikigarri bakoitzaren eraikigarritasunaren zenbatekoak birdefinitzea.

Dokumentua jendaurrean erakusgai eduki da 20 egunetan, iragarkiak 2010eko azaroaren 10eko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta 2010eko azaroaren 4ko Noticias de Gipuzkoa eta 2010eko azaroaren 9ko Berria egunkarietan argitaratuz.

Bestalde txostena eskatu zen Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegituretako De-partamendura.

Jendaurrean egon den denboraldian 2 alegazio jaso dira, bat Etxeberrikoa Eraikun-tzak, S.L.k aurkeztutakoa eta bestea Agauntza Berri, S.L.k aurkeztutakoa.



Gipuzkoako Foru Aldundiaren Bide Azpiegituretako Departamenduak aldaketa puntualaren aldeko txostena egin du.

Aurkeztutako alegazio hauen aurrean aldaketa puntualaren idazketa egin duten eta udal arkitekto aholkulari direnek beraien txostena egin dute. Txostenean zera jasotzen da, besteak beste:

1.- Agauntza Berri, S.L.k aurkeztutako alegaziori dagokionean:

#### 1.1 TEILATUPEAN ERAIKIGARRITASUNA.

Alegazioa onartzea proposatzen da, teilatupeak ganbaretako erabilerei lotuta erabiltzeari dagokionean, 3,05 metroko altuera finkoa ezarriz solairutik solairura eta proiektu berri bakoitzean ondoko kanpo-pareten baterako azterketa eskatuz, multzo eraiki-garri bakoitzean bateratasuna lortzeko.

#### 1.2 SOTO SOLAIRUAREN ERAIKIGARRITASUNA.

Alegazioa onartzea proposatzen da.

#### 1.3 APARKALEKU PLAZA ZENBATEKOA.

Alegazioa zati batean onartzea proposatzen da, ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 79 artikuluan adierazitako aparkaleku dotazio minimoa jarriz.

#### 1.4 BEHE SOLAIRUAREN ALTUERA.

Alegazioa onartzea proposatzen da.

#### 1.5 GARAJEEN SOLAIRURA BEHIN-BEHINEKO SARBIDEA.

Alegazioa onartzea proposatzen da, kokapen baldintzak kasu konkretu bakoitzean aztertu eta baimenduz, aldapa ateratzearen gastuak sustapen bakoitzaren kontura izanik eta horren beharra amaitutakoan aldapa desegin eta inguruko urbanizazioa errematatze lanak bermatzeko abala jartzearen beharra ezarriz.

#### 1.6 ETXEBIZITZEN ZENBATEKOAREN KONFIRMAZIOA.

Alegatzaileari berak esaten duena horrela dela erantzutea proposatzen da.

#### 1.7 ALDATUTAKO HIRIGINTZA FITXAN ERAIKIGARRITASUNAREN AKATS ZUZENKETA.

Alegazioa onartzea proposatzen da.

2.- Etxeberrikoa Eraikuntzak, S.L.k aurkeztutako alegazioari dagokionean:

#### 2.1 GARAJE PLAZA ZENBATEKOA.

Alegazioa ez onartzea proposatzen da, ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 79 artikuluan adierazitako aparkaleku dotazio minimoa jarriz.

#### 2.2 BEHE SOLAIRUA ETA SOTOAREN ARTEKO LOTUNEA.



Alegazioa onartzea proposatzen da.

### 2.3 TEILATUPEAN ERAIKIGARRITASUNA.

Alegazioa onartzea proposatzen da, teilatupeak ganbaretako erabilerei lotuta erabiltzeari dagokionean, 3,05 metroko altuera finkoa ezarriz solairutik solairura eta proiektu berri bakoitzean ondoko kanpo-pareten baterako azterketa eskatuz, multzo eraikigarri bakoitzean bateratasuna lortzeko.

### 2.4 PR-3 LURSAILAREN SOTOKO LEHEN SOLAIRUAN 20 GARAJE EGIN AHAL IZATEA.

Alegazioa ez onartzea proposatzen da.

### 2.5 BEHE SOLAIRUKO SESTRAREN ALDAKETA.

Alegazioa onartzea proposatzen da.

### 2.6 PR-15 ETA PR-17 LURSAILEN TAILATUEI BURUZKOA.

Alegazioa onartzea proposatzen da.

### 2.7 PR-14 LURSAILAREN ONDOAN AURRIKUSITAKO APARKALEKUEN ZABALERAREN HAN-DITZEARI BURUZKOA.

Alegazioa zati batean onartzea, 5 metro luzerako aparkalekuak baterian eta 5,5 metroko tarteko bidea aurrakusteari dagokionean.

### 2.8 PR-17 LURSAILAREN ONDOAN ERANSKIN BATZUEN ZATI BATEKO OKUPAZIOAN AKATS ZUZENKETA.

Alegazioa onartzea proposatzen da.

Guzti honen aurrean, Osoko Bilkurak, aurkeztutako alegazio eta txostenak aztertu ondoren eta Hirigintza Obra eta Zerbitzuetako Batzorde Informatzailearen proposamenez, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, honako akordioak hartzen ditu:

1.- AA.SS.etako 6 H.J.A.ko -ITURGAITZAGA- Arau Subsidiarioetako aldaketa puntual honi aurkeztutako alegazioak zati batean onartzea. Onartzen den zati hori dokumentuaren egile eta udal arkitekto aholkulariek direnak bere txostenean adierazi eta akordio hauen azalpen zatian jasotzen den terminoetan onartzen da, gainontzeko alegazioen guztia ezeztu egiten delarik.

2.- Aurreko puntuan onartutakoak kontutan izanda AA.SS.etako 6 H.J.A.ko -ITURGAITZAGA- AA.SS.etako aldaketa puntuala behin betikoz onartzea.

3.- Udal arkitekto aholkulariei, onartutako puntu guztiak jasoko dituen bategindako testua idatz dezaten agintzea. Bategindako testu hau berriro Osoko Bilkurara ekarriko da bere onarpenerako.

## VII.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Saldaña zinegotziak (Alternatiba) lan sustapenekoarena nola dagoen galdetzen du.

Alkateak erantzuten dio ez dakiela ez ote den ulertu beharko erantzuna ezezkoa dela, ze Eusko Jaurlaritzatik ez dela inolako erantzunik jaso.

**VIII.- BILERAREN AMAIERA.-**

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, iluntzeko zazpi terdiak direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

